

MOZIO ARRUNTA,

OSAKIDETZAK DONOSTIA OSPITALE INGURUAN ZERBITZU BERRIAK EGOKITZEARI BURUZ

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Osakidetzak Donostia Ospitale inguruan zerbitzu berriak egokitzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuan, komunikabideen bidez jakin genuen Osasun Sailak Onkologikoaren eta Donostia Ospitalearen artean protonterapiarako teknologia kokatzeko eta kanpo kontsultak eta eguneko zentro bat kokatzeko bi eraikin berri egiteko asmoa duela.

Aukera paregabea iruditzen zaigu gure hiriko ospitale nagusiaren gabezia bat zuzentzeko; hain zuzen, heli-azalera bat eraikitzeke (Araba eta Bizkaiko erreferentziatzko ospitaletan badira halakoak).

Gabezia honek ospitaleko arta atzeratzea dakarrenez, Donostiara etorri beharko luketen gaixo batzuk Gurutzetara bideratu izan dira; alegia, Donostia Ospitaleak behar izaten du hainbat gaixo helikopteroz beste zentroetara bidali.

Egun, helikopteroa Intxaurrendoko suhiltzaileen basean jaisten denez, bertan anbulantzia batek itxaron behar izaten du eta azkeneko kilometroak errepidez egin behar izaten dira. Horrek suposatzen du, alde batetik, denbora luzeagoa behar izatea ospitalera iristeko, eta beste aldetik, trasladoa modu desegokiagoan egin behar izatea, gaixoaren kaltetan. Beraz, kontuan izanda denborak eta lekualdaketak duten arriskua eta garrantzia, komenigarria litzateke Donostia Ospitaleak ere heli-azalera izatea.

Bestetik, gaur egungo Gipuzkoako Emergentziak ESI-ko koordinazio zentroaren espazioa ez da batere egokia: espazio gutxi, baldintza ezegokiak... Interesgarria izan daiteke aipaturiko Osasun Hirian Emergentziak ESI-ko koordinazio zentrorako espazio egoki bat ahalbidetzea eta aldi berean, anbulantzia batentzako base bat ere bertan kokatzea. Horrek asko lagunduko luke larrialdietako osasun artaren kalitatea hobetzen.

Hori guztia dela eta, mozio arrunt hau aurkezten dugu.

MOZIOA ARRUNTA

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

1.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Onkologikoaren eta Donostia Ospitalearen tartean aurreikusiak dituen lanen barruan heli-azalera bat eraikitzeko lanei ekin diezaiela.

2.-Halaber, Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari probestu dezala eraikuntza prozesua Emergentziak ESI-ko koordinazio zentro berri bat ahalbidetzeko eta anbulantzia base bat sortzeko.

Donostian, 2023ko irailaren 8an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea